

**DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2016**

**KONTSUMOBIDE**

1. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarteen funtzionamenduari, laguntza juridikoari eta kontsumo-proiektuak gauzatzeari dagozkien gastuak ordaintzeko diru-laguntzak ..... 2
2. Toki-erakundeentzako eta haiek sustatutako erakundeentzako diru-laguntzen programa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko ..... 3



#### 1.- Izenburua

**Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarten funtzionamenduari, laguntza juridikoari eta kontsumo-proiektuak gauzatzeari dagozkien gastuak ordaintzeko diru-laguntzak**

#### 2.- Araua

EBAZPENA, 2015eko abenduaren 16koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendariarena, (2015-12-24 EHAA 245. ZK.).

#### 3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hauen xedea Kontsumitzaileen Antolakundeen funtzionamenduari, laguntza juridikoari eta kontsumo-proiektuak gauzatzeari dagozkien gastuak ordaintzea da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskadiko Kontsumitzaileen Antolakundeen Erroldan egon beharko dira; halaber, kontsumitzaileen defentsa izan behar da helburu bakarra, beren jardunbide-eremuak Euskal Autonomia Erkidego osoa hartuz.

#### 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016. urtean hurrengo ekimenak egin dituzten 3 Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarteri eman zaizkie diru-laguntzak .

- Kontsumitzaileei emandako arreta: guztira 4.825 kontsulta artatu dituzte eta kontsumitzaileen 1.147 erreklamazio kudeatu.
- Laguntza juridikoa: Aholkulari juridikoen zuzeneko arreta, kontsumitzaileek munta txikiko epaiketetan aurkeztutako 120 demanda eta 2 bukarazte-akzio aurkeztu izana.
- Kontsumo-proiektuak: Kontsumitzaileei zuzendutako ikerketak eta informazio eta sentsibilizazio ekintzak egitea.



## 1.- Izenburua

**Toki-erakundeentzako eta haiek sustatutako erakundeentzako diru-laguntzen programa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2010eko otsailaren 17koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena (2010-02-24ko EHAA, 37. zk.).

EBAZPENA, 2015eko abenduaren 10ekoa, Kontsumobideko zuzendariarena (2015-12-20ko EHAA, 244. zk.).

## 3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horien helburua da Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoen instalazio-gastuak, eraberritze-gastuak, ekipamendua handitzeko gastuak edo Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulego izatera bideratutako zentro eta zerbitzuen kokapen-aldaketarekin lotutako gastuak ordaintzea, baita honako gastu hauek ere: Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulego izatera bideratutako zentro eta zerbitzuen funtzionamendu-gastuak, bulego horiek egiten dituzten prestakuntza- eta zabalkuntza-jardueren ondoriozko gastuak, eta kontsumo-ikuskapeneko jarduerak egitearen ondoriozko gastuak.

## 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016. urtean 35 erakunderi eman zaizkie laguntzak Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoen funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, eta horri esker bulego horiek arreta eskaini ahal izan diete kontsumitzaileen erreklamazio eta kontsultei, baita informazio- eta prestakuntza-jardueren garapenari ere.

Era berean, laguntzak eman zaizkie 7 erakunderi kontsumo-ikuskapeneko jarduerak garatzeko, eta jarduera horien bidez merkatuan kontsumitzailearen eskueran jarritako produktuen segurtasunaren kontrola gehitu da.

Bestalde, laguntzak eman zaizkio erakunde bati bulegoen ekipamendua eta instalazioak hobetzeko.